

# Zibersegurtasunaren oinarrizko lexikoa



 UZEIren lankidetzarekin



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

## **antivirus**

*Ordenagailu batean sartu den edo sartzeko ahaleginetan dabilen birusa detektatzeko eta haren eragina indargabetzeko gai den programa.*

## **autentifikazio**

*Sare edo sistema informatiko batera sartzen saiatzen den erabiltzailearen informazioa aurrez egiaztatzea.*

## **birus**

*Erabiltzaileak jakin gabe ordenagailuan sartzen den programa edo programazio-kodea, programei, datuei edo sistemari kalte egiteko sortua dena.*

## **DDoS eraso; zerbitzu-ukatze banatuaren bidezko eraso**

*Zerbitzu-ukatzearen bidezko eraso, datu-eskaera ugari aldi berean eta leku desberdinetatik egitean datzana.*

## **DoS eraso; zerbitzu-ukatzearen bidezko eraso**

*Lineako zerbitzu baten aurkako zibererasoa, hura gainkargatzeko edo motelarazteko datu-eskaera ugari aldi berean egitean datzana.*

## **hacker; pirata informatiko**

*Baimenik gabe inoren sistema informatikoetan sartzen den pertsona, ezkutuko informazioa lortzea edo sistema horiek manipulatzeko helburu duena.*

## **identitatea ordezte**

*Iruzur bidez beste pertsona edo erakunde bat ordezte.*

## **intrusio**

*Gailu edo sistema batean baimenik gabe eta helburu gaiztoekin sartzea.*

## **kalteberatasun**

*Sistema informatiko baten ahulgunea, zibergaizkileek asmo txarreko helburuz erabil dezaketena (esate baterako, sistemara baimenik gabe sartzeko edo, behin sartutakoan, administratzaile-baimenak lortzeko).*

## **malware; software gaizto**

*Sistema informatiko batean sartzeko eta hura nolabait hondatzeko helburua duen softwarea.*

## **pasahitz**

*Ordenagailuetan eta kidekoetan, erabiltzailea identifikatzen duen kode babestua.*

## **phishing**

*Informazio konfidentziala ilegalki eskuratzea pertsona edo erakunde baten identitatea iruzur bidez ordeztuz. Horretarako, zibergaizkileak mezu bat bidaltzen dio balizko biktimari (askotan, posta elektronikoz), eta ekintzaren bat egitea eskatzen dio (hala nola esteka bat irekitzea eta lapurtu nahi dizkion datuak idaztea).*

## **ransomware**

*Malware-mota, ordenagailua infektatzen eta datuak zifratzen dituena. Horrelakoetan, zibergaizkileak bahisaria ordaintzea eskatzen du datuak deszifratzeko.*

## **spam**

*Aldi berean helbide askotara, baimenik gabe, bidaltzen den mezu elektronikoa, publizitatea egiteko edo asmo gaiztoz hedarazten dena.*

## **spyware; software espioi**

*Software gaiztoa, ordenagailu batean, erabiltzailearen baimenik gabe, informazioa biltzen duena eta ondoren beste norbaiti helarazten diona.*

## **suebaki**

*Sare informatikoak babesteko segurtasun-gailua, baimenik ez dutenak bertan sartzea eragozten duena.*

## **troiar; Troiako zaldi**

*Itxuraz kalterik egiten ez duen programa erabilgarria, barnean ezkutatutako software gaiztoa duena. Software gaizto hori exekutatzean, infektatutako gailua kontrolatzeko aukera ematen dio zibergaizkileari.*

## **web ilun**

*Bilatzaileek indexatu ezin dituzten eta ohiko arakatzailerekin bistaratu ezin diren web-orrien multzoa. Zifratze-sistemen bidez bermatzen da erabiltzaileen anonimotasuna. Web iluna osatzen dute, besteak beste, legez kanpoko salgaiak eskaintzen dituzten web-orriek.*

## **web sakon**

*Bilatzaileek indexatu ezin dituzten arren ohiko arakatzailerekin erabiliz bistara daitezkeen web-orrien multzoa. Sakoneko weba osatzen dute, besteak beste, babestutako intranetek eta pasahitzez babestutako informazioak.*

## **ziberdelinkuentzia**

*Ordenagailuen edo bestelako gailu informatikoen erabileran oinarritutako kriminalitatea. Sareko haur-pornografia, zibererasoak, iruzur informatikoa eta abar barnean hartzen ditu.*

## **ziberdelitu; delitu informatiko**

*Ordenagailuak edo bestelako gailu informatikoak erabiliz egiten den delitua.*

## **zibereraso**

*Gailu edo sistema informatiko baten aurkako eraso, hura kontrolatzeko edo hondatzeko, datuak lapurtzeko edo bestelako asmo gaiztoz egiten dena.*

## **zibergaizkile**

*Delitu informatikoak egiten dituen pertsona.*

## **ziberjazarpen**

*Interneten egiten den jazarpena, bereziki sare sozialetan irainak edo mehatxuak argitaratuz egiten dena eta maiz jazarlearen identitatea ordeztzen edo ezkututzen duena.*

## **zibermehatxu**

*Sistema informatiko baten segurtasuna arriskuan jar dezakeen egoera edo baldintza, berezko arrazoiengatik, istripuz, edo nahita eraginda sor daitekeena.*

## **zibersegurtasun**

*Gailu eta sistema informatikoak eta horietan jasotako datuak zibererasoetatik babesteko neurrien multzoa.*

## **zibersegurtasun-gorabehera**

*Sare edo sistema informatiko baten segurtasuna arriskuan jar dezakeen edozein gertakari.*



UZEIren lankidetzarekin



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE